

Jèp de Montoyaren hitzaldia:

Lehendakari txit garaia, Euskaltzaindiko euskaltzain txit garaiak eta Institut d' Estudis Aranesi – Arango Okzitanierako Akademiako kide txit garaiak. Gure euskalherriko lagunak.

Gaur egun handia da guretzat, Arango okzitanierako Akademiako kideontzat, harrera egiten gaituzuelako eta zuen ekitaldi ospetsuetako batean gure akademia Euskal Herrian eta Euskal Herriari aurkezteko aukera ematen diguzuelako. Beste aurkezpen batzuk egin ditugu, bai Arango haranean bai Katalunian eta Madrilen, baina honek berezitasun bat du niretzat, eskerrak emateko baita nolabait. Duela urte batzuk, hemen, Bilbon, APORLOC, (*Association de Prefiguration de l'Organisme de Regulation de la la Langue d' Oc*) elkarteko gainerako kideekin zuen erakundea eta jarduteko modua aztertzen egon ginenean, okzitanieraren organo arautzailea izan behar zuen eredua bilatzeko, *Fryske Akademy* akademia eta *Institut d' Estudis Catalans* institutua bisitatuz egin genuen moduan, eta zuen aholkuak eta tratatu gintuzuen adeitasuna eta trebetasuna kontuan hartuz, oso argi izan nuen kide jakintsu, prestu eta leialak izango zinetela. Andres Urrutia lehendakariaren hitzak, Akademiaren, Hitz handiekin, estatusa bila dezagun animatuz, Conselh Generau d'Aran eta Kataluniako Generalitaten bidez, lege- eta zuzenbide-esparru horren bidez egiten ez bagenuen, zaila izango baitzen Frantziako, Monakoko edo Italiako beste edozein administrazioak ematea. Zoragarria izan zen eta nire uste osoa berresten zuen. Hortik abiatuz, luzea eta gogorra baina oso emankorra izan zen prozesua martxan jarri genuen. Eskerrik asko horregatik guztiagatik!

Status hori dagoeneko lortuta, ohore handia da guretzat geure burua eta geure lehen argitalpenak Euskal Herriari aurkeztea.

Aranera Arango haraneko berezko okzitanieraren aldaera da, eta han, XI. mendetik hitz egiten da. Lurraldeak 620 km² ditu eta euskarazko edo Pirinioetako hizkuntza- eta arraza-oinarria du. Gure historiak berdinak eta paraleloak direla erakusten du horrek, gure haranaren nomenklaturak adierazten duen modua, izan ere, Aran prerromanotik dator (Haran).

Kataluniako 1979ko estatutuak aranera irakatsi eta babestuko dela ezarri zuen.

Arango haranaren araubide bereziari buruzko uztailaren 13ko 16/1990 Legeak administrazio-autonomiako erregimena ematen dio, eta aranera

okzitanierari atxikita dagoela onartzen du. Bestalde, Arango hizkuntza propioa eta Haraneko ofiziala dela ezartzen du, katalana eta gaztelania bezala, Kataluniako Autonomia Estatutuaren 3. artikulua arabera.

Horregatik guztiagatik, Arango harana Okzitaniako hizkuntza-eremu osoko lurralde bakarra da, eta aranera ofizialki onartuta egoteaz gain, erakundearen babesa ere badu. Ondorioz, biztanleen artean bizirik gehien dagoen eta gehiena ezaguna den okzitanieraren lurraldea ere da. Frantziako Okzitania osoan biztanleen % 16k okzitanieraz hitz egiten daki; Aranen, % 55k baino gehiagok.

Gaur egun 10.000 pertsona inguru bizi dira Arango haranean, eta Kataluniako Generalitateko Kultura Sailaren hizkuntza-erabilerei buruzko 2013. urteko inkestaren arabera, ehuneko 80,7k ulertzen du, ehuneko 55,6k badaki hitz egiten, ehuneko 59,3k irakurtzen daki eta ehuneko 34,9k idazten daki.

Kataluniako Autonomia Estatutuaren erreformari buruzko uztailaren 19ko 6/2006 Lege Organikoak ezartzen du okzitania, Aranen aranera dena, lurralde horretako hizkuntza propioa da eta Katalunian ofiziala da.

Arango araubide bereziaren otsailaren 5eko 1/2015 Legearen arabera, bere gobernu-organismoak, hots, Conselh Generau d'Aran batzordeak, eskumen osoa du okzitanieraren (Aranen aranera deritzona) erabilera sustatzeari, normalizatzeari eta erregulatzeari buruzko guztian, Katalunia osoan hizkuntza-politikaren eta hezkuntzaren arloan indarrean dauden lege orokorren arabera.

Arango Okzitanierako Akademia 35/2010. legeari jarraituz sortu zen. Horren arabera, Arango Azterlanen Institutuak herri-administrazioetatik independentea izan behar du, dagokion izaera akademikoa guztiz lortu behar du eta hizkuntza-eskumena izan behar du araneraren erabilera-konbentzionalismoak finkatzeko, okzitanieraren oinarriaren hizkuntza-aldaera kontuan hartuz. Halaber, hizkuntza-arloan eskatzen zaion aholkularitzarako eskumena izan behar du. Une honetan hori errealitatea da, eta hemen gure erakundea eta bere lehen argitalpenak aurkezten ari gara.

Fòrça gràcies! Eskerrik asko!

Ròsa Salqueiroren hitzaldia:

Lehendakari txit garaia, Euskaltzaindiko euskaltzain txit garaiak eta Institut d' Estudis Aranesi – Arango Okzitanierako Akademiako kide txit garaiak. Gure euskalherriko lagunak.

Institut d'Estudis Aranesi – Acadèmia aranesa dera lengua occitana akademiak, bi mila eta hamalaugarren urteko Dekretua argitaratu zenetik bere lehen lanak argitaratu ditu. Hauek dira:

- *Gramatica basica der occitan aranés*. Behin-behineko testua da. Gramatika honetan, okzitanieraren Arango aldaeraren berezitasunak jasotzen dira, eta koherentzia-prozesu bati eusten dio gaur egungo arauekin.

Behin-behineko testua da, hizkuntza bati buruzko arautegi bat haren gizarte-erabilera egituratzeko balio behar duten arauen antolaketa bat da, eta gizarteak parte hartzeko aukera du.

Akademian haiek egindako ekarpenak aztertuko ditugu eta horiek aintzatu hartuz, behin betiko argitalpena egingo dugu.

Gramatika hau hizkuntza irakasteko pentsatuz egin da, eskolan nagusiki, hitz egindako hizkuntzari leialak izanda, hizkuntza-zorroztasunez, eta okzitanieraren estandarrarekin konpromisoa hartuta.

1999. urtetik dauden arau ortografikoen jarraipena da.

Bidea eta nola erabiltzen den erakusten duen dokumentutzat hartu behar dugu oinarritzko gramatika hau. Egindako hainbat ekarpenen, Mistral, Alibert, Coromines, Condò edo Cantalansa egileei egindako kontsulen eta egiaztapen ugariren emaitza da.

- *Per escriure l'occitan*, Jacme Taupiacena. Behin-behineko testua da. Egilea nazioartean ezaguna den eta hizkuntzak oinarri komun bat duela erakusteko batasun-harreman bat izateko borondatearengatik eta zuhertasunarengatik nabarmentzen den Okzitaniako intelektual bat da. Okzitaniera estandarrean eta egilearen irizpideen arabera idatzitako lana da. Okzitanieraren aldaera guztietan aplikagarriak diren arauak dira. Akademiaren helburua normalizazio-prozesua eta hizkuntzaren normalizatzeko prozesua zaintzea da. Dokumentu hau gainerako Okzitaniarekin egindako laguntza bat gisa ulertu behar da. Batasun-nahia erakusten du.

- Discorsi de presentacion der IEA-AALO. Bi mila eta hamabosteko uztailaren hemeretziak Akademiako lehen hamabi kideen sarrerako hitzaldiak jasotzen dituen liburua da.

Askotariko gaiak daude:

- IEA-AALOren ikuspegi saussurearra.
- Aranera eskolan ezartzea.
- Argitalpenak araneraz (1983-2015).
- Izenordain atonoen eta adierazten dituzten osagarrien azterketa.
- Hamar mendeko idazkiak Akademiara heltzeko.
- Arau ortografikoen lehen eta geroa.
- Aranera, integrazio-elementua Arango haranean.
- òc hizkuntza Aranen eta Commingesen. Bi mila urteko historia.

- Okzitanieraren hizkuntza estandarrari buruzko gogoetak. Halaber, Akademiako Atal estandarreko lehendakaria den Joan Salas-Lostau jaunak Akademia aurkeztu baino hamar egun lehenago hil zen eta kidea izan nahi zuela adierazi zuen Pèire Bèc hizkuntzalari, filoso eta erreferentziako poetaren omenez egindako hitzaldia ere jasotzen da. Arango Sindikoaren eta Kataluniako Generalitateko Kultur eta Justizia kontseilariaren hitzaldiak ere irakur daitezke.

Azkenik, Kataluniako Akademia arteko Kontseiluak (12 akademia guztira) elkarrekin ekintza bat egitea eskatuta, uraren inguruan ekitaldi bat antolatuz. Akademiak, parte hartzeko helburuarekin, triptiko bat egin zuen, eta hizkuntzalari ospetsuek parte hartu zuten, hala nola Mosén Condòk, Max Roquetak, Joan Corominesek, Lois Alibertek edo. Frederic Mistralek.

Gaur egun, gure lan-proiektuak azterlan hauek dira:

- Corominesen Sintaxiaren egokitzapena, “*El parlar de la Val d’Aran*” lanean azaldutakoa.
- Jusèp Condòren Hiztegiaren egokitzapena, mila bederatziehun eta hamabosgarren urtean argitaratutakoa.
- Definizioen hiztegia. Haraneko eskolek eskatuta.

Eskerri asko.

LOURDES ESPAÑAREN HITZALDIA

Hizkuntza eskolen arteko gizarte-kohesioko tresna gisa

Lehendakari txit garaia, Euskaltzaindiko euskaltzain txit garaiak eta Institut d' Estudis Aranesi – Arango Okzitanierako Akademiako kide txit garaiak. Gure euskalherriko lagunak.

Hizkuntza pertsonen artean sozializazio-prozesua egiten den baliabide bakarra da agian. Pertsona batek bere ideiak, iritziak eta sentimenduak erraz adierazten ez dituenean edo hizketaldietan oso gutxi parte hartzen duenean, zaila egiten zaio besteekin gizarte-harreman ona izatea.

Aranera gure gizartearen gizarte-kohesioko eta gizarteratzeko funtsezko tresna da, arrazoi geografiko eta sozioekonomikoengatik betidanik harrera-lurra izan dena.

Bisitariak Arango haranera heltzean azkarren antzematen duen ezaugarrietako bat hizkuntza-aniztasuna da. Aranera jatorrizko biztanleek erabiltzen duten erakunde hizkuntza da. Gaztelania eta katalana dira langileek eraikuntza eta zerbitzuen sektoreetan gehien erabiltzen dituzten hizkuntzak. Gizarte-aniztasun horri gero eta ugariagoa den talde bat gehitu behar zaio: Afrikatik, Europako ekialdetik eta Latinoamerikatik datozen etorkinak.

Hartzen dituen tokiaren hizkuntza eta kultura ezagutzea erabakigarria da denak integratzeko, eguneroko bizitzaren alderdi guztietan.

Hizkuntza txertatzeko prozesuan jatorrizko hizkuntzen aniztasuna eta integratzeko modu desberdinak kontuan hartu behar dira. Beraz, funtsezkoa da gure kasuan aranera komunikazio-hizkuntza gisa sustatzen duen hizkuntza normalizatzeko sistema on bat izatea.

Gizarteko estamentu guztietan integrazio hori lortzeko bideratutako zenbait neurri egokitu behar dira.

Horregatik guztiagatik Conselh Generauk bere erantzukizunaz jabeturik Hizkuntza Normalizazioko Plan bat egin zuen. Helburuetako bat hizkuntza eta kultura ikasten laguntzea zen eta da (esaterako, aranerazko ikastaroak edo doako ikasmateriala emanaz biztanleei). Badakigu kultura-artekotasuna trukea errazteko garrantzitsua dela.

Ez dakitenei hizkuntza erakutsi behar diegu. Hizkuntza bat ikasteak erabiltzen ikastea ere dakar. Eta gizarte-elkarrekintzaren bidez bakarrik

ikasten da.

Planteamendu horrek, hizkuntza bat ikastea erabili nahi izatearekin zuzenean lotuta dagoela esan nahi du, eta beraz, jarrera positiboa eta motibatzailea izan behar dela.

Ez da beti erraza, integrazioa prozesu bat delako, ez jarrera puntual bat, egoera, eremu, leku, jende berri batera egokitu behar da; errealitate berri batera azken finean. Beraz, harrera- eta onarpen-jarrera bat eskaini behar da. Kodeak eta arauak erakutsi behar dira, baina argi izan behar dugu prozesu horiek zailtasunez eta gatazkez beterik daudela. Haurrentzat eta nerabeentzat batik bat, jatorrizko kulturaren eta gazteek identifikatzeko joera duten bertako herrialdeko kulturaren artean ezartzen den dualismoarengatik. Eskolan gure hizkuntza eta kultura ikasten dituzte, baina etxera itzultzean, beraien jatorrizko herrialdera itzuliko balira bezala hitz egiten, jaten eta bizitzen dira. Desegonkortzen duen egoera bat ezartzen da; gizarte-bizikidetzaren esparruan, gatazkak handitzeko arriskua duen eta desberdintasunak bideratzea zailtzen duen egoera bat.

Amaitzeko, esan dezakegu urteak igaro ondoren konturatu garela hizkuntza bat ikasteko metodologiarik eraginkorrena komunikazio-ikuspegia dela. Metodologia honek edukiak ikasleen motibazioekin, intereseekin eta ezaugarri pertsonalekin lotuta egotea proposatzen duela. Gelako jarduerak komunikaziozko esku-hartzea izan behar dute. Oinarrizko lau hizkuntza-gaitasunak (ahozko ulermena, irakurmena, mintzamena eta idazmena) batera lantzen dira. Horrez gain, ikasleek, irakasleek eta eskola-inguruak hizkuntzaren erabilera normalaren gainean duten sentsibilizazioa ere lantzen da.

Eskerri asko.

Miquèu Segalàsen hitzaldia:

Lehendakari txit garaia, Euskaltzaindiko euskaltzain txit garaiak eta Institut d' Estudis Aranesi – Arango Okzitanierako Akademiako kide txit garaiak. Gure euskalherriko lagunak.

Gramatikari buruz hitz egitea eskatu didate. Argitalpen honen puntu nagusiak labur azaltzen saiatuko naiz.

Lehen orrialdean hau irakur dezakegu: “Gramatica basica der occitan aranés”. (Behin-behineko testua).

- “Oinarrizkoa” dela diogu Arango haranean erabiltzen diren oinarrizko arau orokorrenak jasotzen dituen metodo bat izan behar dugulako, aranera esaten diogun eta Arango haraneko ikastetxe guztietan nahitaez erakusten den okzitanieraren aldaera hori zuzen idazteko eta irakurtzeko.

Esan behar dut mila bederatziehun eta laurogeita hirugarren urtean “Normes ortografiques der aranés” argitaratu zenetik ez zela beste ezein metodorik ofizialki argitaratu.

- “Behin-behineko” testua dela esaten da idatzi duten eta hemen dauden kideek, egokitze eta zorroztze jotzen diren ekarpenekin berri edo handitu daitekeen eskuliburu bat izatea nahi dutelako.

Arango haranean hiru eremu geografiko daudela esan dezakegu, bai maila ekonomikoan, turismoaren eraginarengatik, bai hizkuntza-mailan: Goi Aran (Naut Aran), Erdi Aran (Miei Aran) eta Behe Aran (Baish Aran).

Aranera uniformea ez denez, izan ere, hiztegi mailan, maila morfologikoan eta fonetikan aniztasun handia du, zaila izan da forma orokorrenak ezartzea. Hala eta guztiz ere, gramatika honetan denak jaso ezin bada ere, argi utzi nahi dugu erabilitako forma guztiak zuzenak direla.

Oro har, hauek dira gramatika honek jasotzen dituen punturik garrantzitsuenak:

- Aditz-morfologiaren arloan, gramatika honek behin betiko egokitzen du Loís Alibertek, erreferentziako hizkuntzalaria eta 1930eko hamarkadan okzitanierazko lehen gramatiketako baten egilea denak, proposatutako okzitanierazko forma. Hau ezartzen du:
- Lehen aditz-jokoa AR infinitiboarekin (azken R mutua izanda) amaitzen diren aditzek osatzen dute; esaterako, CANTAR aditza.
- Bigarren aditz-jokoa IR infinitiboan (BORIR edo MORIR) amaitzen diren aditzek osatzen dute.
- Hirugarren aditz-jokoa zenbait taldek osatzen dute, silaba

azentudunaren posizioaren arabera (azken R mutua da), hala nola GÉSSER, PODER, edo erdi-bokalez osatutakoa: VEIR, TRÈIR edo TIER eta VIER.

- Azentuazioari dagokionez, idatzizko hizkuntzan hitz proparoxitonoak sortzen saihestu behar da, eta gramatica idatzi (azenturik gabe), nahiz eta gramàtica esan (azentuarekin), guztiz orokortua eginda.
- Aranera orokorrarekin bat ez datozen beste forma batzuk daude; lurralde batzuetako forma orokorrak dira. Hauek dira adierazgarrienak:
 - Indikatiboko burutugabeen bukaeretan dagoen V latindarra Terçon de Pujòloko berezko ezaugarri orokarra da, Naut Aranen, beraz, cantava, cantaves, cantave... formak ditugu. Gainera lekuetan, V hori U gisa ahoskatzen da, eta forma hauek ditugu: cantaua, cantaues, cantaue..., gramatikak jasotzen dituenak direnak.
 - Fonetikan, hitz-amaierako T-ak sabaikariak dira, eta Terçon de Quate Lòcs-eko herrietan, Baish Aranen, erabiltzen dira. Gainerako lekuetan ez dira erabiltzen.

Amaitzeko, gramatika honetan, Arango lurraldean ahozko nahiz idatzizko hizkuntzan gehien erabiltzen diren formak jasotzen direla nabarmendu nahi dut, hau da, forma orokorrenak. Horien ondoan, Arango hiru esparru geografiko batzuetan bakarrik erabiltzen diren formak daude, eta normalean erabiltzen dira.

Eskerri asko.

Jusèp Loís Sansen hitzaldia:

Andres Urrutia jaun txit garaia, Euskaltzaindiko eta Arango Okzitanierako Akademiako txit garaia, jaun-andreak:

Arango haraneko hizkuntza propioak, aranerak, okzitanieraren aldaera denak, babes garrantzitsua du. Kataluniako autonomia-estatutua egin zenean, babestu behar zelako sartu zen aranera. Arango eskoletan irakaskuntza-prozesu bat hasi zen, eta hasiera batean, astero ordubeteko eskolak eskaintzen ziren, hautazko ikasgai gisa. Hori 80ko hamarkadaren hasieran gertatu zen. Garai horretan, araneraren arau ortografiko batzuk sortu ziren.

2006. urtean autonomia-estatutu berria ezarri zen Katalunian eta Kataluniako autonomia-erkidego osoko hizkuntza ofizial deklaratu zuten okzitaniera.

Institut d'Estudis Aranesi-Acadèmia aranesa dera lengua occitana akademia Generalitateak Conselh Generau d'Arán kontseiluarekin adostuta sortu zen, 2014ko urtarileko Dekretu baten bidez, eta Institut d'Estudis Catalans, Gaztelaniazko Akademiak edo Euskaltzaindiak duten maila juridiko berdinarekin. Hortik aurrera, Conselh Generau d'Aran kontseiluaren eta Kataluniako Generalitatearen laguntzaz erakundea eratu dugu, estatutuak onartu ditugu, Barne-araubideko arautegia, beharrezkoak diren aurkezpenak egin ditugu eta gaur egun, gure lanaren lehen emaitza aurkez dezakegu. Funtsean okzitaniera estandarraren arautegi ortografikoa aurkeztuko dugu gaur, herriari kohesioa ematen diona, hizkuntza nazional bihurtzen duena, eta baita "Arango okzitanieraren oinarritzko gramatika" ere, Katalunian indarra hartu duen eta okzitaniera hizkuntza ofizial bihurtu duen aldaerarena. Orain, Akademia sortzeko Dekretuak eman digun antolaketa-eskumenaren berri ematen dugu, eta okzitaniera estandarraren oinarritzko gramatika eta arautegi ortografiko hau aurkeztuz egiten dugu.

Eman diguten antolaketa-gaitasun honek, hizkuntza-agintaritza delakoak, ezaugarri bereziak ditu. Ez du zehatzen. Baina ez da agintari intelektual bat ere. Ikertu behar dugu baina ez gara ikertzearekin konformatu behar; ezagutzen saiatzen gara, baina ez da nahitaezkoa gizarteak inplikatzeko, proiektu kolektiboarekin konpromisoa izatea. Akademia honetan garrantzitsuena ez da hizkuntza; erabiltzen duten pertsonak eta inplikatzeko diren egiturak eta erakundeak baizik. Ezin dugu agindu pertsonak kontuan hartu gabe. Jendearen artean egon

behar dugu.

Gurea agintaritza propositiboa da. Ez dugu arautegi bat ezartzen eta kito. Gogoetan eta azterketan oinarritutako erreferentziak ematen ditugu, gaur egungo hizkuntzaren erabilera eta bere historia kontuan hartuz. Kanean, eskoletan, sustatzen den lekuetan eta bestelakoetan benetan erabiltzea saiatzen gara. Arau bat egiten dugunean arau hori aplikatzeaz ere arduratzen gara. Behin-behineko proposamen bat gisa aurkeztu dugu arautegia, gizarteak parte hartzea eskatzen dugu, zehazten amaitzeko, eta kontuan behar diren alderdi horiek bideratzen ere saiatzen gara. Ez da harrokeria intelektualez egindako lana, hizkuntza-arloetan intelektueltasuna denok garelako, ez dago harrokeriarik. Nortasun-harrotasun kolektiboa da, eta hizkuntzan herriaren eskubideak kontuan hartzen dira.

Gure agintaritza eskuordetuta dago. Hizkuntza herriarena da. Herria da hizkuntzaren jabea, bere erakundeen, hiztunen, eskolaren, administrazioen, idazleen eta bestelakoen bidez. Guk ez dugu definizioa asmatzen, ez dugu magiarik egiten, herriak egiten duen erabilera kontuan hartzen dugu eta forma ematen diogu. Ikuspegi diakroniko batetik, hizkuntzaren sinkronia aztertu eta formarik errazena ematen diogu, koherentziari eutsiz. Ezagutzaren kutxetan eta adierazpenaren eta hitzaren lautadetan bilatu beha dugu, gure hizkuntzaren bidez definitzeko modurik egokiena aurkitzeko.

Gure aginpidea apala da. Jende askok, egitura askok, irtenbideak eta orientazioak ekartzen dituzte hizkuntza sortzeko eta ebazteko prozesuan. Akademiak ekarpen horiek guztiak ulertzen jakin behar du, eta sormen guztiei etekina atera behar die. Ezinbestekoa da hizkuntzak duen autonomiaz baliatzea, guztiak oinordekoak eta zerbitzariak garen herriaren eta historiaren izaeran, arima kolektiboan, oinarritutako independentziari jarraituz.

Hizkuntza-laborategietan egindako lan sakon eta izugarri horiei etekina atera behar diegu, errealtatearekin harremanik ez badute ere, baliagarriak eta beharrezkoak diren gogoetak ekartzen dituztelako. Bestalde, ez dira bideratu behar hizkuntza-garapenaren zentzu zientifikoaren kontra etengabe adierazten diren baina oraindik bizirik dauden errealtate burugogorrak. Eta batez ere partaidetzaren apologia egitea dagokigu. Oin bat ikerketan eta bestea kanean jartzen dugu, leku batekoa ez bestekoa bakarrik ez izateko, eta erudiziorik handienarekin garatu behar dugun herriaren enkargu bat dugula ez ahazteko, herriari

itzuli behar diogulako. Norabidea ez galtzeko eta herriaren hitza eta nazioaren izaera identifikatzeko lan egiten dugula gogoratzeko, jarrera propositibo eta umilaz hasierak bi oinarritzko lanak aurkezten ditugu: araneraren aldaeraren gramatika eta aldaera estandarraren arautegi ortografikoa. Okzitaniera estandarraren arautegi ortografikoa, 54 puntu dituen, gure Akademiako kidea den Jacme Taupiacek egindako “Per escriure l'occitan” lanean oinarrituz onartu da, eta orain arte gehien hedatutako arau grafikoak jasotzen ditu. Hizkuntza definitu eta arautu egiten du. Gehien hedatuta dagoen erabilera jaso eta arau bihurtzen du. Taupiacek berak dioenez, bi oinarritzko ezaugarri ditu: bata, Erdi Aroko okzitanierazko testurik zaharrenen grafiaren forma modernoa jasotzen duena; bestea, Loís Alibèrten okzitanierazko Gramatikan ezarritako arau grafikoa funtsean dena.

Eta bi lan horiek aldi berean aurkeztean, Arango okzitanierako Akademiaren oinarritzko filosofia zein den igortzen dugu: hizkuntza estandarra, okzitaniera, eta hemen gure araneraren aldaeran ditugun hainbat aldaera. Biak elkartuta, elkarrekin bizitza emateko. Jasotako aldaera, etxekoa, gure pasioena, aranera, milaka urtetan erabili dugulako eta azken hogeita hamar urteetan modu zoragarrian bizi izan duguna, gure eskolan ziurtasunez sartuz, administrazioak konpromisoa hartuz eta etengabeko aldarrikapen politikoa eginez. Eta erabiltzen jarraitzea zaila bada ere, gogo eta burugogorkeria handia jarri dioguna. Aldaera estandarra diogu okzitaniera 200.000 kilometro koadro inguruko lurralde batean erabiltzen delako, duintasunaren, errespetuaren eta maitasunaren historiaren hizkuntza delako, eta jazarri duten arren, oraindik bizirik dagoelako eta maite dugulako. Oraindik frantsesa edo gaztelania ez den hizkuntza baten ondorengo sentitzen garelako. Katalanetik oso hurbil dago, baina ez da katalana, eta euskararekin antzekotasun handiak ditu. Berezko pentsamendu eta sentimenduak sortu dituen hizkuntza bazter-hizkuntza bihurtu nahi dute, arraroa etxe barruan, baina oraindik identifikatzeko eta ikusarazteko balio zaigu. Aranera eta estandarra, Loís Alibèrten eta 1935. urtean, bere hizkuntzaren erreferenteak argitasunez eta jabetuz definitzen ari zen Katalunian argitaratutako Okzitanierazko gramatikaren printzipioetan oinarritzen direnak.

Kataluniako Akademia bat da, eta bere egoitza lurralde okzitaniarrean du. Gure lana Katalunia osorako da, baina begiak Arango haranean eta

Okzitania osoan ditugu. Gure urratsak lurraldearen leku guztietatik mugitzen dira, gure jakin-minak leku guztietan bilatzen du, Aranen batez ere sakontzen dugu, baina Okzitanian bilatzen dugu, Kataluniako lurralde okzitaniar osoan aztertzen dugu.

Duela mila urte hasi zen hizkuntza zahar baten historia bat delako. Enbor bera da, lurrian eusten dioten sustrai sakonekin, gu baino askoz ere lehenagokoak direnak, dagoeneko ahaztu zaizkigun adierazpenak eta hizkerak dituenak. Okzitaniera sortzen, sentimendu kolektiboa eraikitzen lagundu duten guztiekin, trobadoreekin, Okzitanian idazle handiekin, lumarekin, hitzarekin edo abestiarekin adierazi direnekin egindako hizkuntza da. Hitza kolpeka eraiki eta gure hizkuntza isiltzea saihestu dutenekin sortutako enpresa bat da hau. Inguruabar zailtan, askotan tristeetan, gaizki hartzen diren lehietan mugitu direnei esker gaude hemen. Gure hizkuntzaren heroiak izatea lortu dute. Bizitzeko hitzaz baliatzen direnen garaipenean pentsatzen dut. Horrekin, arrakasta bat sortzen dute porrot askoren barruan. Egutero okzitanieraz arrazoitu duten horietan ere pentsatzen dut, Alemaniako Herder filosofoaren argudioak bultzatu duten horietan. Horren arabera, "hizkuntzarik gabe arrazoa falta zaio gizakiari, eta arrazoirik gabe ez dago hizkuntzarik". Hori da gure argudioa, talde eta herri gisa identifikatzen gaituen hizkuntzarena, filosofoaren arabera "arima osoa, gure arbasoen pentsatzeko modu osoa igortzen duen" hizkuntzarena. Eta hemen gaude, gure adierazteko modua azaltzen, gure hizkuntzaren definizio kolektiboa bideratzen saiatzen, gure hitz egiteko moduari modernotasuna ekartzeko helburuarekin, mundu guztiari igorri nahi diogun izaera sortuz, herriaren zolitasuna egituratuz eta partekatuz, pentsamenduak adierazten dituen nahi berezia, gure bihotzak hitzen artean igortzen duena.

Eskerrik asko Euskaltzaindiari, gure historiarengatik, zuen ibilbidearengatik, zuen lanarengatik, irakaskuntzengatik, bere zuekin harremanetan jartzeko gonbidapen honengatik bereziki. Gaur, gure erakundearen ateak, *Institut d'Estudis Aranès-Acadèmia aranesa dera lengua occitana* Akademiaren ateak, zuentzat zabalik daude, nahi duzuen eta baliagarriak izan gaitezkeen gauza guztietarako.